



cámara de álava arabako ganbera

**ARABAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ZERBITZU
GANBERAN GOBERNU ORGANOAK BERRITZEKO HAUTESKUNDE
PROZESUA**

OINARRIZKO INFORMAZIOA

2026KO IRAILA

AURKIBIDEA

- 1.- MERKATARITZA GANBERAK**
- 2.- ARABAKO MERKATARITZA GANBERAREN GOBERNU ORGANOAK**
- 3.- HAUTESKUNDE PROZESUA**
- 4.- ARAUDIA**
- 5.-ARABAKO MERKATARITZA GANBERAREN HAUTESKUNDE ERROLDA**
- 6.- HAUTESKUNDE BATZORDEA**
- 7.- A TALDEKO KANDIDATURAK AURKEZTEA**
- 8.- A TALDEKO KANDIDATURAK IZENDATZEA**
- 9.- A TALDEKO HAUTESLEEK BOTOZ BOZKATZEA**
- 10.- POSTA BIDEZKO BOTOA**
- 11.- HAUTESKUNDE MAHAIA**
- 12.- BOTO KONTAKETA**
- 13.- KARGUA HARTZEA ETA AGINTALDIAREN IRAUPENA**
- 14.- ENPRESA ERAKUNDEEN PROPOSAMENEZ KIDEAK**
- 15.- C TALDEAN BORONDATEZ EKARPEN HANDIENeko ENPRESEN KIDEAK**
- 16.-GOBERNU ORGANUEN ERAKETA**
- 17.- EKINTZAK ETA BALIABIDEAK**

ERANSKINAK

- 1. ERANSKINA. HAUTESKUNDE EGUTEGIA**
- 2. ERANSKINA. ERAKUNDEKO ERROLDAREN ATAL, TALDE ETA KATEGORIEN ARABERA EGITURA ETA BERMEEN KOPURUA**
- 3. ERANSKINA. EREDU NORMALIZATUA**
- 4. ERANSKINA. METAPOSTAKO POSTONTZI PARTEKATUAREN BIDEZ HAUTAGAITZA AURKEZTEKO GIDA.**

1.- MERKATARITZA GANBERAK

Merkataritza Ganberak beren ibilbide luzean ekonomia bultzatu eta enpresa lehiakortasuna hobetzeko orduan elementu erabakigarria direla egiaztatu dute. Beren zeregin nagusia merkataritzaren, industriaren, zerbitzuen eta nabigazioaren interes orokorrak defendatzea da, baita enpresei (nagusiki, ETE eta mikroETEEi) zerbitzuak eskaintzea ere, ekonomia garatzea eta enplegua sortzea sustatzeko.

Legeak xedatutakoarekin bat, Ganberak zuzenbide publikoko korporazioak dira eta nortasun juridikoa dute, beren helburuak bete ditzaten jarduteko gaitasun osoarekin batera. Horrez gain, administrazio publikoen kontsulta organo bezala egituratzen dira, lortu nahi dituzten interes pribatuak gutxietsi gabe.

Korporazio demokratikoak dira eta gutxienez ordezkarien 2/3 botoz hautatzen da.

Enpresa guztiak Ganberen erroldan inskribatuak daude. Kide izan arren, enpresek ez dute inolako betebeharr ekonomikorik, zerbitzuak erabil baititzakete eta gobernu organoetan parte har baitezakete.

Jarduerak finantzatzeko eskaintako zerbitzuak kobratzen dira. Horrez gain, administrazio publikoekin hitzarmenak sinatzen dituzte eta enpresen borondatezko ekarpenak jaso ere bai.

Ildo horri jarraiki, Ganberak erakunde gardenak dira eta diru-sarreraren eta gastuen kontrol araubidea argi eta garbi sendotzen duten zaintza mekanismoez hornituak daude.

2.- ARABAKO MERKATARITZA GANBERAREN GOBERNU ORGANOAK

Ganberen gobernu organoak osoko bilkura, batzorde betearazlea eta lehendakaria dira.

Osoko bilkura Ganberen gobernu eta ordezkaritza organo gorena da eta gutxienez hamar (10) kidek eta gehienez hirurogeik (60) osatuko dute. Bere agintaldiak lau (4) urte iraungo ditu.

Osoko bilkurako kideen bi (2) heren Ganberaren barruan dauden enpresa guztien ordezkariak izango dira, sektore ekonomiko desberdinetan ageri duten ordezkaritzaren arabera.

Gainera, sektoreen arteko eta lurraldeko enpresa erakunde esangarrienek proposatu ostean, Ganbera bakoitzari dagokion barrutiko bizi ekonomikoan izen handiko pertsonak eta borondatezko ekarpen handiena egiten duten enpresetako ordezkariak egongo dira.

Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberaren kasuan, osoko bilkura hogeita hamasei (36) kidek osatuko dute honako taldeetan sartuta:

- A) TALDEA: Arabako Ganberari atxikitako enpresa guztien hogeita lau (24) ordezkari. Boto libre, zuzen eta sekretuaren bitartez hautatuko dituzte atal, talde eta, bidezkoa bada, kategorietan sailkatutako hautesleek.
- B) TALDEA: Arabako Lurralde Historikoaren bizi ekonomikoan izen handiko pertsona eta enpresen bost (5) ordezkari, sektoreen arteko eta lurraldeko enpresa erakunde esangarrienek proposatu ondoren.
- C) TALDEA: borondatez ekarpen handiena egiten duten enpresen zazpi (7) ordezkari; Boto libre, zuzen eta sekretuaren bitartez hautatuko dira Araba Ganberari borondatezko ekarpen handiena egiten dioten enpresen artean.

Lehendakaria osoko bilkurak bere kideen artetik aukeratuko du.

Batzorde betearazlea hamar (10) kidek osatuko dute eta osoko bilkurak aukeratuko du. Ganbera kudeatu, administratu eta proposamenak egiteko organo iraunkorra da.

Osoko bilkurako eta Batzorde Betearazleko kideei zein Lehendakari dagokienez, agintaldiaren iraupena lau (4) urtekoa da.

3.- HAUTESKUNDE PROZESUA

Lau (4) urtez behin Merkataritza Ganberetan osoko bilkurako kideak berritzeari ekiten zaio. Hauteskunde prozesuaren oinarritzko elementuak hurrengoak dira:

1. Ekonomia, Merkataritza eta Enoresa Ministerioak hauteskunde prozesua irekitzea zehaztuko du eta Ministerioaren aginduaren bidez ekingo zaio. 2025eko abenduaren 4an ECM/1382/2025 Agindua, argitaratu zen eta 2025eko abenduaren 1etik 2027ko abenduaren 31erarte prozesua irekitzat jo zen.
2. Administrazio zaindariak Merkataritza Ganberetan hauteskundeetarako deialdia egin behar du. Gure kasuan, Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzari dagokio Euskadiko Merkataritza Ganberetarako hauteskunde deialdiari buruzko ebazpena egitea. Hala, aipatu ebazpena 2026ko irailaren 9ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da.
3. A taldeko kideak boto libre, berdin, zuzen eta sekretuaren bidez aukeratuko dituzte enpresa guztiek.
4. B taldeko kideak administrazio zaindariak izendatutako enpresa erakundeak proposatuko dituzte, SEA Arabako Empresak.

5. Azkenik, agintaldi bakoitzerako ekarpen ekonomiko handiena egiten duten C taldeko zazpi enpresak hautatuko dira.
6. Osoko bilkura aurreko taldeetako kideekin osatuko da eta Ganbera bakoitzaren lehendakaria nahiz batzorde betearazlea hautatuko dituzte.

4.- ARAUDIA

Arabako Merkataritza Ganberaren osoko bilkura berritzeko hauteskunde prozesuari buruzko araudia honakoek jasotzen dute: 4/2014 Legeak, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioari buruzko oinarrizkoak, apirilaren 1ekoak (2014ko apirilaren 2ko EAO); 78/2015 Dekretuak, maiatzaren 26koak, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganbera Ofizialen hauteskunde prozedura eta gobernu organoen konposizioa arautzen duenak (2015eko uztailaren 3ko EHAA); Korporazioaren Barne Araubiderako Araudiak; eta Turismo eta Merkataritza sailburuordearen 2026ko Irailaren 1eko ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganbera Ofizialen gobernu organoak berritzeko hauteskundeetarako deialdia egin duenak, Irailaren 9an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dena.

5.- ARABAKO MERKATARITZA GANBERAREN HAUTESKUNDE ERROLDA

Arabako Ganberaren hauteskunde erroldaren barruan pertsona fisikoak edo juridikoak, naziokoak edo atzerrikoak sartuko dira, merkataritza, industria, zerbitzu edo nabigazio jarduerak garatzen badituzte eta establezimenduak, ordezkaritzak edo agentziak Arabako lurraldean badaude.

Hauteskunde erroldako hautesleak hiru ataletan sailkatuak ageri dira:

1. Industria eta eraikuntza.
2. Merkataritza eta ostalaritza.
3. Zerbitzuak.

Atal bakoitza taldeetan banatuta dago jarduera ekonomikoaren arabera eta kategoriatan talde desberdinen garrantzi ekonomikoa kontuan hartuta.

Arabako Merkataritza Ganberaren hauteskunde erroldari dagokion egitura 2. eranskinean aurki daiteke.

6.- HAUTESKUNDE BATZORDEA

Hauteskundeen gardentasuna eta objektibotasuna bermatzeko, Hauteskunde Batzordea eratuko da Ganberaren mugapean eta honakoek osatuko dute: Ganberako hautesleen hiru (3) kidek; administrazio zaindariak izendatutako bi (2) kidek eta horietatik bat lehendakaritzaren zereginetan jardungo du; idazkari batek (1), hitzarekin baina botorik gabe. Azkenekoa lehendakaritza duen

pertsonak izendatuko du eta halabeharrez administrazio zaindariko langile funtzionarioei erreparatuko die. Nolanahi ere, Hauteskunde Batzordeak zuzenbidean bere mugapeko Ganberako idazkariari aholkuak eskatuko dizkio.

7.- A TALDEKO KANDIDATURAK AURKEZTEA

- **Nor aurkez daiteke?**

Talde honetan Arabako Ganberaren osoko bilkurarako hautagaiak izan daitezke pertsona fisikoak edo juridikoak honako baldintzak betetzen badituzte:

- a) Aurkezten den ataleko, taldeko edo, bidezkoa bada, kategoriako hauteslea izatea.
- b) Honako nazionalitatearen bat izatea: Espainiakoa, Europar Batasuneko Estatu kide batekoa, Europar Gune Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duen Estatu batekoa edo, nazioarteko hitzarmen edo itunaren babesean, arestian aipatu herritarrentzat aurrez ikusitako lege araubidea zabaltzen den Estatu batekoa.
- c) Aurreko hizkian aipatu diren lurraldeetan gutxienez bi (2) urtez enpresa jarduerarekin aritzea.
- d) Zerga obligazioen eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioen ordainketak eguneratuak izatea.
- e) Hauteskundeari buruzko lege orokorrean eskatzen diren adina eta gaitasuna izatea.
- f) Horretarako desgaitzen duen legezko debekuren batean sartuta ez egotea.

Pertsona juridikoen kasuan, hautagaia eta, hala badagokio, osoko bilkurako kidea pertsona juridikoa bera izango da eta osoko bilkuran nahikoa ahalmen duen pertsona fisiko batek (1) ordezkatzeko du. Dena den, pertsona juridikoak edozein unetan ordezkari dezake.

- **Nola aurkeztuko dira kandidaturak?**

Pertsona fisikoek eta juridikoek beren kandidaturak idatziz aurkeztu beharko dituzte Arabako Merkataritzako Webgunean eskuragarri dauden 2A (pertsona fisikoaren kandidaturen kasuan) eta 2B (pertsona juridikoen kandidaturen kasuan) ereduaren bitartez.

Hautagaitzak fisikoki edo telematikoki aurkeztu ahal izango dira. Hautagaitzak fisikoki aurkezten badira, Arabako Ganberako Idazkaritzan aurkeztu beharko ditu interesdunak edo haren legezko ordezkariak, pertsona juridikoen kasuan, NANA edo pasaporte eta, hala badagokio, ordezkaritza-ahalarde nahikoa erakutsiz, eta hautagaitza aurkeztu den eguna eta ordua jasotzen dituen eginbidea egingo da.

Aurkezpen telematikoen kasuan, aurkezpena METAPOSTaren postontzi partekatu baten bidez egingo da. Aurkezpen hori egin ahal izateko, METAPOSTAra sartu beharko da ziurtagiri digitalaren bidez, eta dokumentu honen IV. eranskinean agertzen diren jarraibideak bete beharko dira.

Fisikoki zein telematikoki aurkezten diren hautagaitza guztiak, agiri hauekin batera aurkeztu beharko da:

- Pertsona fisikoen kandidateuren kasuan:
 - Kandidaturaren bermeak. (3A eta 3B ereduak, abal bakoitza sinatzen duen pertsonaren NANaren kopiarekin batera.)
 - Pertsona sinatzailearen NAN edo pasaportearen fotokopia.
 - Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzaren inguruko ordainketak eguneratuak dituela azaltzen duen indarreko ziurtagiri originala.
 - Pertsona atzerrikoa izanez gero eta Europar Batasunari ez dagokion herrialde batekoa bada: elkarrekikotasunaren baldintza egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Pertsona juridikoen kandidateuren kasuan:
 - Kandidaturaren bermeak. (3A eta 3B ereduak), abal bakoitza sinatzen duen pertsonaren NANaren kopiarekin batera.
 - Legezko pertsona ordezkariaren NAN edo pasaportearen fotokopia.
 - Ordezkaritza ahalmen nahikoaren kopia baimendua edo idazkariak alderatutako fotokopia.
 - Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzaren inguruko ordainketak eguneratuak dituela azaltzen duen indarreko ziurtagiri originala.
 - Pertsona atzerrikoa izanez gero eta Europar Batasunari ez dagokion herrialde batekoa bada: elkarrekikotasunaren baldintza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Pertsona hautagaiaren edo bere ordezkariaren sinaduren egiazkotasuna fede-emaila publikoaren edo Arabako Ganberako idazkari nagusiaren ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da. Pertsona juridikoaren kasuan, ahalorde nahikoaren bidez ordezkaritza egiaztatu beharko da.

Hautagaitzetako akatsak, fisikoki zein telematikoki aurkeztutakoak, hiru (3) egun balioduneko epe luzaezinean zuzendu ahal izango dira, akatsa jakinarazten denetik aurrera.

- **Bermeak**

A taldeko hautesleentzat kandidateurak dagokion kategorian errolatutako hautesleen % 5ek sinatuz bermatuko ditu. Kategorian hautesleen kopurua berrehunetik (200) gorakoa bada, nahikoa izango da bere taldeko edo, bidezkoa bada, kategoriako hamar (10) hauteslek sinatzea.

Kategoria bakoitzean berme emaileen gutxieneko kopurua, hautesle errolatuak eta kideen kopurua 2. eranskinean ageri dira.

Berme-emaileek hautagaiaren kategorian errolatuak egon beharko dute. Ezagut ditzaten, eskatzen duten hautesleei, hautagai izateko baldintzak betetzen badituzte, bere kategoriako eroldaren kopia eskuratuko zaie.

Bermeak zalantzarik gabe egingo dira eta modu frogagarrian idatziz utziak geldituko dira berme-emaileen nortasuna eta bermatutako hautagaia.

Berme bakoitza eraginkortasunez aurkezteko zinpeko adierazpena burutuko da 3A (pertsona fisikoen kandidaturen kasuan) eta 3B (pertsona juridikoen kandidaturen kasuan) ereduak jarraituz. Bi ereduak Arabako Merkataritza Ganberako webgunean eskuragarri daude. Berme-emaileen sinaduraren egiazkotasuna ziurtatzea ez da beharrezkoa izango.

Kandidaturak bere burua berma dezake eta hautesle bakoitzak bere sinaduraren bitartez nahi dituen kandidaturak berma ditzake. Bermeak halaberharrez bermatutako kandidatura bozkatzera ez du behartuko.

Bermeen akatsak zuzendu ahal izango dira akatsa jakinarazi ondoren, hiru (3) egun baliodunen buruan eta aipatu epea ezingo da luzatu.

Ganberako bulegoak bermeak jasotzeko, ezta bestelako jarduerak gauzatzeko ere ezingo dira erabili, kandidaturen artean zuzenean edo zeharka bereizteko badira.

• **Noiz aurkeztuko dira kandidaturak?**

Irailaren 10tik 23ra bitartean, Arabako Merkataritza Ganberaren Idazkaritza Nagusian, Dato Kalea 38 zenbakian edo horretarako prestatutako Metaposta postontziaren bidez, dokumentu honen IV. eranskineko jarraibideak betez.

Hautagaitzak aurkezteko ordutegia:

- Irailaren 10ean eta 11n 08:30etik 14:30era
- Irailaren 14an 08:30etik 13:00etara
- Irailaren 18an 09:00etatik 14:00etara.
- Irailaren 15, 16, 17, 21, 22 eta 23an goizez 09:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 15:30tik 17:30era.

8.- A TALDEKO KANDIDATURAK IZENDATZEA

Kandidaturak aurkezteko epea amaitzen denean, Hauteskunde Batzordeak eskatutako hautagaien baldintzak betetzen direla egiaztatuko du eta bost (5) egun baliodunetan pertsona hautagaiak izendatzeari ekingo dio.

Kategoria batean izendatutako pertsona hautagaien kopurua hautatu beharreko kideen berdina denean, izendatzean hautatuak geldituko dira, beraz, ez da hauteskunderik egingo.

Kandidaturen kopurua hautatu beharreko kideena baino txikiagoa bada, Hauteskunde Batzordeak izendatutako kandidaturak hautatutzat joko ditu eta egintza berean, kategoriako enpresen artean zozketa eginez, hutsak bete behar dituzten kideak aukeratuko ditu, betiere hautatuak izateko baldintzak betetzen badituzte.

9.- A TALDEKO HAUTESLEEK BOTOZ BOZKATZEA

Kandidaturen kopurua kideena baino handiagoa den talde eta kategoriatan bozketaren bitartez hauteskundeak egingo dira.

- **Noiz eta non?**

Bozketak urriaren 27an egingo dira Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberari dagokion egoitzan, hau da, Vitoria-Gasteizko Eduardo Dato kaleko 38. zenbakian, 9:00etatik 20:00etara, etenaldirik gabe.

- **Nor?**

Hauteskundeak egiten diren tokian kategoria bakoitzean erroldan inskribatutako hautesleak. Botorako eskubidea erabiltzeko orduan, hautesleak nortasuna eta, hala badagokio, eskubidea erabili ahal izateko ordezkariak egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztuko ditu.

Hautesleekin batera, hauteslekuan bakarrik hautagaiak eta beren artekariak, hauteskundearen sekretuari kontra egiten ez badio, hautespen egintzen barruan fede emateko beharrezkoak diren notarioak eta mahaiko lehendakariak eska ditzaketen agintaritzak agenteak sartuko dira.

- **Nola?**

Bozketa isilpekoa izango da eta boto paper tolestuak erabiliko dira, gutun-azalean sartu ostean. Hori hautetsontzian sartuko da hauteskunde mahaiko kideen aurrean. Boto paperak eredu

normalizatuaren arabera burutuko dira eta hautesleen esku jarriko dira hautagaiak izendatzen direnetik eta bozketaren unean.

Hautesleak boto paperean hautatutako hautagaiaren izena edo sozietatearen izena aukeratu beharko du. Hautatu beharreko bokal-kopurua bat (1) baino gehiago diren kategorietan, hutsik dauden bokaltza adina hautagairi eman ahal izango die botoa, boto-orri berean hautatutako hautagaien izena edo sozietate-izena markatuta.

Beharrezko dokumentazioa

- Hautesleak pertsona fisikoak badira, nortasuna honako dokumentu baten originala erakutsiz egiaztatu beharko dute: NANA, pasaportea edo egoiliarren txartela.
- Pertsona juridiko hautesleen ordezkariak nortasuna egiaztatzeke NANA, pasaportea edo egoiliarren txartela eta ordezkaritza erakutsi beharko dute. Bigarren kasuan, ahalorde nahikoaren originala edo kopia baimendua aurkeztuko da, bai orokorra, bai bozketarako berezia.
- Ordezkaritza mankomunatuaren kasuan, botorako eskubidea ordezkari mankomunatuak batera erabil dezakete. Bestela, horietako edozein izan daiteke, gainerako ordezkariak gaitasuna eman badiote eta aurreko puntuko bestelako baldintzak betetzen baditu.
- Ondasun erkidegoetako edo sozietate zibiletako ordezkariak nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzeke, NANA, pasaportea edo egoiliarren txartela eta ondasun erkidegoari buruzko kontratuaren originala aurkeztuko dituzte.
- Ez dira inolaz ere onartuko dokumentu horien fotokopiak, ezta kopia sinpleak ere.

10.- POSTA BIDEZKO BOTOA

Hautesleek bozketaren datan eskubidea erabiltzera hauteslekura ezingo dutela agertu aurrez ikusia badute, postaz botoa eman dezakete, aldez aurretik Arabako Ganberan norberak eskatu ostean.

• Posta bidezko botoa eskatzea

2026ko Irailaren 10etik Urriaren 7ra, biak barne, 1A (pertsona fisikoen kasuan) eta 1B (pertsona juridikoen kasuan) ereduak erabilita posta bidezko botoa eskatu daiteke. Ereduak webgunean eskuragarri daude.

Eskubidea erabiltzeko, interesdunek ereduak osatu eta pertsonalki aurkeztuko dute Ganberaren Idazkaritzan edo, bestela, premiazko posta ziurtatuz bidaliko dute adierazitako datetan. Eskabidean honakoak azalduko dira idatziz:

a) **Pertsona fisikoen** kasuan:

- Nortasuna egiaztatu beharko dute eta, horretarako, honako dokumentu baten originala erakutsiko dute: NANA, pasaporte, gidatzeko baimena edo egoiliarren txartela; hala, eskabideari horren fotokopia erantsiko zaio.
- Pertsona fisikoek Espainiako nazionalitatea ez badute, nortasuna egiaztatu beharko dute dagokion nortasun agiria edo, hori izan ezean, pasaporte edo atzerriko nortasun txartela aurkeztuz. Nazionalak Europar Batasuneko Estatu kideetakoak, Europar Eremu Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatua duten Estatukoak edo atzerritartasunaren erkidegoko araubidea betetzen duten Estatukoak badira, Atzerritarren Erregistro Nagusian egindako inskribapenaren ziurtagiria aurkeztuko dute.
- Eskabidea premiazko posta ziurtatuz bidaltzen bada, nortasuna eta eskatzailearen ordezkari-tza egiaztatze-ko erabiliko den dokumentazioa behar bezala konpultsatua egotea eskatuko da. Nolanahi ere, fede-emaile publikoak edo Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberako idazkari nagusiak egin dezake konpultsa.
- Bozkatu nahi den kategoria. Ez bada agertzen, posta bidezko botoa pertsona hauteslea inskribatua dagoen kategoria guztietarako eskatzen duela ulertuko da.

b) **Pertsona juridikoen** kasuan:

- Ordezkar-iak, aurreko agiriren bat erakutsiz nortasuna egiaztatzeaz gain, bere ordezkari-tza ziurtatu beharko du eta, horretarako, gaitasun nahikoa duela azaltzen duen dokumentu originala erakutsiko du. Era berean, eskabideari aipatu dokumentuen fotokopia erantsiko dio.
- Horrekin batera, erakundearen egoitza eta IFZ egiaztatuko dira.
- Eskabidea premiazko posta ziurtatuz bidaltzen bada, nortasuna eta eskatzailearen ordezkari-tza egiaztatze-ko erabiliko den dokumentazioa behar bezala konpultsatua egotea eskatuko da. Nolanahi ere, fede-emaile publikoak edo Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberako idazkari nagusiak egin dezake konpultsa.
- Bozkatu nahi den kategoria. Ez bada agertzen, posta bidezko botoa pertsona hauteslea inskribatua dagoen kategoria guztietarako eskatzen duela ulertuko da.

- **Ganberak eskabidea hartzea**

Behar bezala osatuta pertsonalki edo posta ziurtatuz eskabidea jaso ostean, kasu bakoitzean eskatzen diren dokumentuekin, Ganberak hurrengo moduan jardungo du:

- a. Hauteskunde erroldan inskribatuta al dagoen egiaztatuko du.
- b. Inskribatuta dagoen taldearen/en eta, bidezkoa bada, kategoriaren egiaztapen ziurtagiria egingo du.
- c. Aurrez aurreko botoa ez onartzeko erroldan idatziko du.

- **Ganberak posta bidez botoa emateko dokumentazioa eta erabiltzeko argibideak bidaltzea**

Ganberak pertsona eskatzaileari, hautagiak izendatzeko epemugatik bozkapen eguna baino 10 egun lehenagorarte, premiazko posta ziurtatuz bidaliko dio xede horrez emandako helbidera eta, hori izan ezean, erroldan agertzen dena. Taldean hautespenik egin behar ez bada, pertsona eskatzaileari gorabehera hori jakinaraziko zaio.

Talde edo kategoria bakoitzeko eskatzaileari hurrengo dokumentazioa bidaliko zaio:

- I. Hauteskunde Batzordeko Idazkaritzari bideratutako gutun-azala. Horretan, entregatu behar den hauteskunde mahaia adieraziko da.
- II. Botorako eskubidea izanik, talde eta kategoria bakoitzeko boto-papera/k.
- III. Boto paper bakoitza sartzeko gutun-azala; aurrealdean taldea eta, bidezkoa bada, kategoria idatziko dira.
- IV. Hauteskunde erroldan inskribatua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- V. Dagokion taldean eta kategorian izendatutako kandidaturen zerrenda.
- VI. Argibideen orria.

Hautesleak boto papera gutun-azalaren barruan sartuko du eta aurrealdean atala, taldea eta, bidezkoa bada, kategoria idatziko ditu. Itxi ondoren, lehenengo gutun-azala, erroldan inskribapen ziurtagiriarekin batera, bigarren gutun-azalean sartuko du eta premiazko posta ziurtatuz bidaliko dio Hauteskunde Batzordeko Idazkaritzari.

- **Posta bidezko botoa onartzeko epea**

Bakarrik Urriak 26ko 12:00ak baino lehen postaz jasotako botoak onartuko dira.

- **Botoa pertsonalki erabiltzeko posta bidezko botoari uko egitea**

Posta bidezko botoa emateko ziurtagiria eta dokumentazioa lortu ondoren, pertsonalki bozkatu nahi duenak egin dezake, baina, horretarako, hauteskunde mahaia dokumentuak itzuliko dizkio. Modu horretan egiten ez badu, botoa ez zaio jasoko.

Aipatu dokumentazioa jada Hauteskunde Batzordeari bidali badio, hauteskunde mahaian 8A eredu (pertsona fisikoen kasuan) edo 8B eredu (pertsona juridikoen kasuan) aurkeztuz egin dezake. Aurrez aurre emateko posta bidezko botoari uko egin nahi badio 8A eta 8B ereduak hauteslearen eskura egongo dira, bai Arabako Merkataritza Ganberako webgunean eta baita ere Ganberan bertan bozketen egunean.

11.- HAUTESKUNDE MAHAIA

Hauteskunde Mahaian pertsona batek (1) Lehendakaritza izango du eta beste bi (2) Hauteskunde Batzordeak izendatutako kideak dira. Horiek hautagaiak ez diren hautesleen artetik aukeratuko dira, baina Gasteizen helbideratuak egon beharko dute. Aukeratzeko, Ganberako osoko bilkurak kategoriako bi (2) proposatuko ditu eta horien artean zozketatuko da.

Hautesle guztiek hauteskunde prozedura fiskalizatzeko eskubidea dute. Hautagai bakoitzak gehienez bi (2) artekari izenda ditzake, bozketa eta boto-kontaketa fiskalizatzeko. Xede horrez, 7A (pertsona fisikoa) eta 7B (pertsona juridikoa) ereduak erabiliko dira. Eredu horiek Arabako Merkataritza Ganberako webgunean eskura daude.

Artekariak izendatzen dituen idazkia Urriaren 26ko 12:00ak baino lehen aurkez daiteke.

Erreklamazioak unean aurkeztu beharko dira idatziz Hauteskunde Mahaiaren aurrean eta orduan bertan ebatziko ditu erakunde berak. Hala ere, Hauteskunde Batzordearen aurrean hiru (3) egun baliodunen epean apelazioa aurkez daiteke eta hori egin eta hurrengo hiru (3) egun baliodunetan ebatzi beharko du. Ebazpenaren aurka Turismo eta Merkataritza sailburuordearen aurrean errekurtoa jar daiteke hamabost (15) egun baliodunen epean.

12.- BOTO KONTAKETA

Hauteslekua itxitakoan, jendaurrean egingo da eta artekariak bertan izango dira.

Ordenari erreparatuz, hautatutzat joko dira boto kopuru gehiena lortu duten kandidaturak. Berdinketaren kasuan, hautatua izango da aurkeztu den kategorian Ganberaren eroldan antzintasun handiena duena.

13.- KARGUA HARTZEA ETA AGINTALDIAREN IRAUPENA

A eta C taldeei dagokienez, hautatutako pertsonak kargua Arabako Ganberako idazkari nagusiaren aurrean hartuko dute, izendapenaren jakinarazpena jasotzen duten unetik. Ganberako Idazkaritzak hautatutako pertsona bakoitzari egiaztatutako entregatuko dio, kide hautatua izan dela justifikatzeko.

Osoko bilkuraren kideak enpresak izango dira, bai pertsona fisikoak, bai juridikoak. Pertsona fisikoak osatutako enpresek beren karguak pertsonalki hartuko dituzte eta pertsona juridikoek gaitasun nahikoa duen ordezkariaren bidez, horretarako izendatu ostean.

Agintaldiak lau (4) urte iraungo ditu.

14.- ENPRESA ERAKUNDEEN PROPOSAMENEZ KIDEAK

Hautesleek botoa ematearen bidez hauteskundeak azken emaitza egiaztatu eta hurrengo bost (5) egun baliodunen buruan SEA ARABAKO ENPRESAK Hauteskunde Batzordean hautagaien zerrenda bat (1) aurkeztuko du eta Arabako bizi ekonomikoan izen handiko enpresen nahiz pertsonen ordezkariak izango dira. Horri hauteskundeak deialdiari buruzko ebazpenean aurrez ikusitako egiaztapen dokumentazioa erantsiko zaio.

Bost (5) pertsona hautagai proposatuko dira aipatu zerrendan. Proposatutako pertsonak ezin izan dira agertu hauteskunde prozesu berdinean zuzenean hautatzeko hautagai modura eta proposamenak emakumeen eta gizonen presentzia parekidea jaso beharko du.

15.- C TALDEAN BORONDATEZ EKARPEN HANDIENEN ENPRESEN KIDEAK

Agintaldi bakoitzean Arabako Merkataritza Ganberari borondatez ekarpen ekonomiko handienak egiten dizkieten zazpi (7) enpresak C talde honetan hautatuak izan daitezke. Xede horrez, Arabako Ganberak borondatezko ekarpenak egiten dituzten enpresen errolda sortu du 78/2015 Dekretuak, uztailaren 26koak, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioaren Ganbera Ofizialetan hauteskunde prozedura eta gobernu organoen konposizioa arautzen duenak, (2015eko uztailaren 3ko EHAA) eta erakundearen beraren barne araubideari buruzko araudiak, xedatutakoari jarraiki.

Erroldan borondatezko ekarpen handiena egiten duen enpresen kopurua bete behar den kide kopuruaren berdina edo txikiagoa bada, erroldan dauden guztiak izango dira hautagai, berariaz kontrakoa adierazten denean izan ezik. Ildo horri eutsiz, dagokion egiaztapen dokumentazioa eta

Arabako Merkataritza Ganberaren webgunean eskuragarri dagoen 6 eredu orri normalizatuaren arabera zinpeko adierazpena aurkeztu beharko dute. Hori 2026ko irailaren 30era arte egin dezakete.

16.- GOBERNU ORGANOEN ERAKETA

Osoko bilkura berria Arabako Ganberaren egoitzan egingo da, Arabako Ganberako idazkari nagusiak deialdia egin ondoren, Administrazio Tutelatzailerak ezarritako egunean eta orduan. Data hori 2026ko azaroaren 19 izan daitekela aurreikusten da.

Osoko bilkura eratutakoan, bozketa izendatu eta isilpekoaren bidez hautatuko dira lehendakaria eta batzorde betearazlea. Horretarako, maiatzaren 26ko 78/2015 Dekretuaren 34.2 artikuluan adierazitako osaera eta eginkizunekin osatuko da Hauteskunde Mahaia.. Bilkurari hasiera emanaz gero, hautagaitzak proposatzeko txanda hasiko da. Bozketa egin baino 24 ordu lehenago aurkeztu beharko dira hautagai-zerrenda horiek. Lehendakaritzara aurkeztu den pertsonak hautagai zerrenda bakarria aurkeztuko du, Batzorde Betearazleko kargu eta kide guztiak bilduko dituen. Aukeraketa gehiengo soilez egingen da.

17.- EKINTZAK ETA BALIABIDEAK

Hauteskunde Mahaiaren erabakien aurka unean bertan idatziz erreklama daiteke eta bere erabakiaren kontra Hauteskunde Batzordearen aurrean apelatzeko aukera dago.

Hauteskunde Batzordearen erabakien aurka Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza sailburuordearen aurrean errekurtoa jar daiteke eta bere ebazpenak administrazio bidea amaituko du.

Turismo eta Merkataritza sailburuordearen ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke.

1. ERANSKINA

A TALDEAREN HAUTESKUNDE EGUTEGIA

IRAILAREN 9A	HAUTESKUNDEETARAKO DEIALDIA ARGITARATZEA
IRAILAREN 10TIK 23RA	A TALDEKO KANDIDATURAK AURKEZTEA
IRAILAREN 10TIK 30ERA	C TALDEKO KANDIDATURAK AURKEZTEA
IRAILAREN 10ETIK URRAIAREN 7RA	POSTA BIDEZKO BOTOA ESKATZEA
URRIAREN 28TIK AZAROAREN 3RA	B TALDEKO KANDIDATURAK AURKEZTEA
IRAILAREN 30A	A TALDEKO KANDIDATURAK IZENDATZEKO EPEMUGA
URRIAREN 7A	C TALDEKO KANDIDATURAK IZENDATZEKO EPEMUGA
URRIAREN 13A	PERTSONA ESKATZAILEARI POSTA BIDEZKO BOTOAREN DOKUMENTAZIOA BIDALTZEKO EPEMUGA
URRAIAREN 26A 12:00etan	HAUTESKUNDE BATZORDEAK POSTA BIDEZKO BOTOA HARTZEKO EPEMUGA
URRIAREN 27A	HAUTESKUNDEAK EGITEA
ARAZORAREN 19A	OSOKO BILKURA ERATZAILEA, LEHENDAKARIA ETA BATZORDE BETEARAZLEA HAUTATZEA

2. ERANSKINA

ERAKUNDEKO ERROLDAREN ATAL, TALDE ETA KATEGORIEN ARABERA EGITURA ETA BERMEEN KOPURUA

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIAREN ATALA			
TALDEAK	KIDEAK	Hautesle Kop.	Kandidaturako berme kop.
1.- ENERGIA ETA URA (11-16) MINERALAK EZ-ENERGETIKOAK ETA PRODUKTU DERIBATUAK ATERA ETA ARALDATZEA. INDUSTRIA KIMIKOA. (21-25)			
1. kategoria	2	22	1
2. kategoria	1	738	10
2.- METALAK ERALDATZEKO INDUSTRIAK. XEHETASUN MEKANIKA (31-39)			
1. kategoria	3	26	1
2. kategoria	2	1.100	10
3.- BESTELAKO MANUFATURA INDUSTRIAK (41-49)			
1. kategoria	2	21	1
2. kategoria	2	1.218	10
4.- ERAIKUNTZA (50)	2	4.053	10

SECCION COMERCIO Y HOSTELERIA			
TALDEAK	KIDEAK	Hautesle Kop.	Kandidaturako berme kop.
5.- HANDIZKAKO MERKATARITZA (61)	1	1.365	10
6.- TXIKIZKAKO MERKATARITZA (62-66)	2	4.549	10
7.- ELIKADURA ZERBITZUAK, OSTATUA ETA KONPONKETAK (67-69)	1	2.858	10

SECCION SERVICIOS			
TALDEAK	KIDEAK	Hautesle Kop.	Kandidaturako berme kop.
8.- GARRARIOAK ETA KOMUNIKAZIOA (72,75 y 76)	1	1.883	10
9.- FINANTZA ERAKUNDEAK ETA ASEGURUAK (81-83)	1	2.384	10
10.- BESTELAKO ZERBITZUAK(84-99)			
1. kategoria	2	18	1
2. kategoria	2	8.769	10

3. ERANSKIA WEBGUNEAN ESKURAGARRI DAUTEN EREDU NORMALIZATUEN ZERREDA

- 1.A eredia. Posta bidezko botoaren eskabidea pertsona fisikoentzat.
- 1.B eredia. Posta bidezko botoaren eskabidea pertsona juridikoentzat.
- 2.A eredia. «A taldea» hautagaitza aurkeztea, pertsona fisikoentzat.
- 2.B eredia. «A taldea» hautagaitza aurkeztea, pertsona juridikoentzat.
- 3.A eredia. Pertsona fisikoaren abal indibidualerako erantzukizunpeko adierazpena.
- 3.B eredia. Pertsona juridikoaren abal indibidualerako erantzukizunpeko adierazpena.
- 4. eredia. Bozketa-orria.
- 5. eredia. Botoa emateko barruko gutun-azala.
- 6 eredia. C taldeko hautagai izateko maiatzaren 26ko 78/2015 Dekretuaren 11.1 artikuluko b), d), e) eta f) letretako eta 11.2 artikuluko baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, bete beharreko ordezkaritza adina enpresa edo gutxiago daudelako erroldan.
- 7.A eredia. Pertsona fisikoaren kontu-hartzaile izendatzeko idazkia.
- 7.B eredia. Pertsona juridikoaren kontu-hartzaile izendatzeko idazkia.
- 8.A eredia. Pertsona fisikoentzako posta bidezko botoari uko egitea.
- 8.B eredia. Pertsona juridikoentzako posta bidezko botoari uko egitea.
- 9.A eredia. C talderako hautagaitza aurkeztea pertsona fisikoentzat, bete beharreko ordezkaritza baino enpresa gehiago daudelako erroldan.
- 9.B eredia. C talderako hautagaitza aurkeztea pertsona juridikoentzat, bete beharreko ordezkaritza baino enpresa gehiago daudelako erroldan.